

40. Ingurumen Buletina
2017ko Maiatza

40. *Ingurumen Buletina*



- Elikaduraren etorkizuna eta nekazaritzaren erronkak XXI. menderako
- Beroaldiek hilkortasuna areagotuko dute
- ”Etxalde Jaten duguna gara” elikadura burujabetza zabaldu eta konzientziazeko tresna berria
- ”Euskal Ya: Irtenbiderik gabeko gatazka” izeneko txostenaren aurkezpena Iruñean

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

**MANU
ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA**

Elikaduraren etorkizuna eta nekazaritzaren erronkak XXI. menderako

Apirilaren 24 eta 26a bitartean Gasteizen solasaldi garrantzitsu bat izango da: **“Elikaduraren etorkizuna eta nekazaritzaren erronkak XXI menderako”**. Solasaldiaren antolatzaileak: EH-NE Bizkaia nekazarien sindikatua (zeina Via Campesinako kide den) eta Etxalde Euskal Herriko nekazaritza iraunkorraren eta elikadura-burujatetzaren aldeko mugimendua; hau izango da lehen urratsa Via Campesinak datorren uztailean Derion (Bizkaia) antolatu duen Nazioarteko VII Konferentzia dela eta. Solasaldian lankide izango da Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta ere.

Jardunaldi hau garrantzitsua izango da, arrazoi akademiko zein politikoak medio. ICAS (Initiatives in Critical Agrarian Studies) solasaldietan ohikoa denez, hainbat akademiko ospetsuk, militantek eta ikertzailek parte hartuko dute, Europa zein munduko beste eskualde batzuetakoak.

Solasaldiaren asmoak jasotzen dituen manifestuak honakoa dio: Elikadurari, edota hobeto esateko elikadura osasuntsua izateko giza-eskubidearen aldarriari garrantzia eman nahi diegu. Baita, honekin batera, gure lurraldean milaka baserritar eta arrantzalek egunez egun egiten duten lana aintzat hartu ere; gure janaria eurek ekoizten eta ematen digute, nahiz eta zenbait sektore politiko eta ekonomikok sinestarazi nahi duten haien eginkizuna dela elikagaien industria lehengai merkeaz hornitzea. Pentsamolde aldaketa hori, hots, elikadura osasuntsua izateko eskubide unibertuala aitortzea, funtsezko ekarpena da edozein herri eraikitzeke eta gizarte justuago eta berdinagoa lortzeko, herritarren beharrianak aintzat hartuta.

Eskubide hori bermatzeko gure proposamena elikadura-burujabetza da. Zer esan nahi du horrek? Produktzioa ahal den jende gehienak egingo duela ziurtatu; lurra eta ura berreskuratu sektore haue-tan pertsona gehiagok lan egin dezaten;

biztanleria elikatzeke kalitatezko eta behar besteko janaria produzitu eta zerbitzatzea; ekoizpena tokiko merkatu-ara bideratzea; produkzio, arrantza, eraldatze eta merkatu-aratze prozesuen autonomia gorenera hurbiltzea, baita prezioa erabakitzerakoan ere, eta azkenik, oinarritzko printzipio gisa gardentasuna, konfiantza eta etika hartzea; hauek gidatu behar dute arrantza eta nekazaritza iraunkorra.

Elikadura burujabetza tokiko eremuarekin lotuta dago, baina baita produkzio ereduarekin ere. Ez da bateragarria nekazaritza intentsibo eta industrializatuarekin, edota muga biologikorik ezagutzen ez duen arrantzarekin. Aldarrikaten dugu elikagaiak ez direla salgai hutsa, baizik giza-terriaren biziraupenerako oinarritzko eta berezko eskubidea.

Elikadura osasuntsua izateko eskubidea benetakoa izan dadin, nekazaritza eta arrantza politika publikoen ardatz nagusi gisa hartu behar da, eta gure eraldatze politiken erdigunean kokatu:

- Merkataritza libreko itunen ondorio diren merkatu-politiken ordeztokiko ekonomia eta kontsumoa sustatu behar dugu, eta hau harreman ekonomikoen ereduaren oinarri bihurtu.
- Jatekoa hornitzen duten pertsonak beren eginkizunak gure biziraupenerako duen garrantzi eta balioaren arabera errenta jaso behar dute, hots, diru-sarrerara duinak.
- Tokiko elikadura politika publikoen ardatz izan behar da. Hau da hainbat arazo konpontzeko bide bakarra, esaterako haurren pobrezia; gainera, horrela kalitatezko elikadura ez da luxuztat joko.
- Elikadurari dagokionez, erosketa bakoitza ekintza politikoa da. Horregatik, ezinbestekoa da kontutan izatea aldaketa soziala eragiteko ahalmena dugula, eta horren arabera egikaritu behar dugula erabakitzeko eskubidea.



Beroaldiek hilkortasuna areagotuko dute

Gero eta ikerketa zientifiko gehiagok frogatzen du batetik klima aldaketa gertatzen ari dela (gizajarduerak eragindako berotze globala), eta bestetik, horrek biztanleriarengan kalte handia eragiten duela. Hain zuzen, BC3 klima aldaketaren ikerketarako euskal zentroak horri buruzko azterketa baten berri eman zuen Bilbon izan zen Klimatek foroan. Lan honetan kopuru zehatzak aipatzen dira EAEn 80 urterako proiektzio batean gerta daitekeenaren inguruan: Zuzentzeko neurririk hartu ezean, 2020tik aurrera beroaldiek hilkortasuna %58 gehitzea ekar lezakete, agertokirik okerreanean.

Agertokirik okerrenea zein litzateke? Ikerketa honen arabera, berotegi-efektua eragiten duten gasak neurririk gabe gehitzea, hauek mugatzeko politikarik ez delako erabaki. Halako baldintzetan eragina 2050era arte inpaktua konstantea izango da, eta hortik aurrera mende erdiz gorakada handia izango du. Agertokirik ezkorrean, hilkortasuna Bilbon %13 eta %54 bitartean gehituko litzateke; Donostian, %18 eta %58 bitartean, eta Gasteizen %46 eta %54 bitartean, 2020-2100 epealdian.

Ikerketak beroaldien ondorioak aztertzen ditu; hauek dira, Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, muturreko fenomeno meteorologikorik arriskutsuenetakoak, eta pertsonen osasunari kalterik handia egiten diotenak. Beroaldiak datozen hamarraldietan gero eta sarriagoak, gogorragoak eta luzeagoak izango dira, NBEko adituek ohartarazi dutenez. Hau da, beroaldien artean tarte handiagoa izango da, baina latzagoak eta luzeagoak izango dira.

Beroaldien arazoari aurre egiteko eta aipatutako kalterik eragin ez dezaten, ikerketak dioenez alerta goiztiarreko sistemak oso efektiboak omen dira. Muturreko tenperaturen ondorioak leuntzeko biztanleriari oharrak igortzea, alerta ematea, aholku eta emergentzia neurriak azaltzea... Hau oso modu egokia omen da, ikerketak dioenez, onura baitakarte klima aldaketarik gabeko egoeretan, nahiz aldaketa gertatzen den agertoki desberdinetan.

Haatik, alerta sistema hauek gorabehera, erabakigarria litzateke erabateko aldaketa eragitea produkzio, banaketa eta kontsumo sisteman. Denbora ahitzen ari zaigu, eta erabakiok hartzeko borondate politikorik ez dagoela gero eta ageriago ari da geratzen.



“Etxalde jaten duguna gara”: Elikadura burujabetza zabaldu eta kontzientziazteko tresna berria

Etxalde Euskal Herriko Elikadura Burujabetzaren aldeko Baserritarren Mugimenduak, “Etxalde Jaten duguna gara” izeneko aplikazioa bultzatu du. Bere helburua elikadura burujabetza osatzen duten oinarrizko kontzeptuak sozializatzea da. Horretarako jakinarazten digu gure erabakiek zein eragin duten kontsumoan, erosten ditugun produktuak ebaluatuz elikadura burujabetzaren irizpide hauen arabera: ba ote diren, ala ez, sasoiko produktuak, agroekologikoak, gertukoak eta ekonomia sozial eta solidariokoak.

Sasoiko produktuak: Sasoiko produktuak erosiz, elikagaiak nutrizio ezaugarri eta zapore osoz disfrutatzeaz gain, tokiko ekonomia laguntzen duzu, baserritarrekin batera planeta hozten laguntzen duzu, ekoizpenerako zein garraiorako erabiltzen diren energia fosilen kontsumoa gutxitzen baita.

Gertutasuna: Kasu honetan, aplikazioak ebaluatzen du ea produktuak kontsumo puntutik 80 kilometrora baino gertuago ekoiztuak izan diren edo ez. Gertuko produktuak kontsumituz, ekonomia lokalei laguntza ematen zaie eta negutegi efektua eragiten duten gasen emisio kutsakorrak gutxitzen dira.

Agroekologia: Aplikazioak ebaluatzen du ea produktu bat agroekologiaren printzipioak jarraituz ekoiztu den.

Ekonomia sozial eta solidarioa: Atal honetan ebaluatzen da pertsonen behar errealak erdigunean kokatzen duten eta ekarpen kolektiboa bilatzen duten proiektu ekonomiko eta laboralen sare baten baitan ekoiztua izan ote den.

Ezinbestekoa da gizartea ondo informatuta egotea elikadura burujabetzarako eskubidea gauzatuko badu. Gaur aurkezten dugun aplikazio honen funtzio nagusia, hain zuzen, informatzea eta elikadura burujabetzaren printzipioak sozializatzea da. Halaber, lagungarri da ere neoliberalismoaren eta elikadura industrialaren kanpoko alternatibak bilatzeko.

Elikadura industriaren bitartez, neoliberalismoak belaunaldiz belaunaldi geure ahozko tradizioa osatzen zuten ezauguerez gabetu gaitu: Zeintzu produktu diren garaian garaikoak, noiz landatzen diren, nondik datozen, zeintzuk diren bere nutrizio ezaugarriak... Desinformazio prozesu hau garatzeko arrazoia ideologikoa da: Nahi dute guk elikagaiak ikustea eraldatze-industriaren lehengaiak izango balira bezala. ELAk tendentzia honen aurka altxatu nahi du eta elikadura osasuntsua izateko giza eskubidea aldarrikatu.



Euskal Ya: Irtenbiderik gabeko gatazka izeneko txostenaren aurkezpena Iruñean

Martxoak 27an Iruñeko Civivoz Condestable egoitzan, ELA-k, LAB-ek, Sustrai Eraikuntzak eta David Hoyosek, Ekopoleko (Ekonomia Ekologiko eta Ekologia Politikorako Ikerketa taldea) irakasle eta ikertzailea, txosten hau aurkeztu genuen: **Euskal Ya: Irtenbiderik gabeko gatazka**.

ELA sindikatutik AHTren inguruko irakurmen politikoa egitea egokitu zitzaigun eta horretarako aurkezten ari ginen txostenaren hitzak erabili genituen, eta bereziki, Izaro Goroztidi eta Iñaki Barcenak sinatzen duten testuok: “Gizarte-eta ingurumen gatazkak, komunikazioa eta demokrazia: Euskal Y-aren kasua”.

Testu honen paragrafo batean haxe esaten da: Nuria del Visok esan zuen bezala, gatazka sozio-ekologikoak mehatxu dira demokraziarentzat bi arrotzi direla medio. Batetik, **“ez baitago ez informaziorik, ez gardentasunik proiektuaren gainean”** eta bestetik, **“ez baitago parte hartzeko egiazko mekanismorik aipatu proiektuen gainean era kolektiboan erabakitzeko”**.

Bere aldetik, Sustrai Eraikuntzak Nafarroako egoeraren analisia egin zuen. Horretarako Nafarroako Abiadura Handiko Korridorea zahar eta zaharkitutzat jo zuen. Gainera pasadako hauteskunde kanpaina Nafarroako gizarteari informazioa ezkutatu zitzaioa, eta sistematikoki hausnarketa eta eztabaida soziala ezeztatzen dela aipatu zen. Bestalde, proiektu hau ingurumen ikuspuntutik jasanezina dela seinalatu zen eta, bukatzeko, bere eraikuntzarekin Nafarroako Foru Komunitateko pertsonen mugikortasuna txarrera joko zuela esan zen.

Bestalde, David Hoyosek ekonomiko eta errentagarri sozialaren ikuspuntu batetik, Euskal Y: Irtenbiderik gabeko gatazka izeneko txostenaren aurkezpena egin zuen. Ezin berreskuragarria den, inbertsioaren kostua alde batera utzita, ia ezinezkoa da ustiapen-mozkinak lortzea publiko diru-laguntzen laguntzarik gabe, azpiegitura honen funtzionamendu eta mantentzearen kostua zein altua den kontuan harturik.

Gainera, ebidentziak erakusten digu, Euskal Y-aren modura, bere ustiapen kostuak betetzen ez dituen trenbide-linea batek, zergen bidezko transferentzia bat suposatzen duela gizartearen beheko mailatik aberatsen mailara. Beste hitzekin, erakundeak errenta altuak mesederako eta aberatsen eta pobreen arteko aldea handitzen duten inbertsioak bultzatzen ari dira.

Ingurumeneko analisiari dagokionez, Ekopoletik abiadura handiko trena politika berdetzat ezin dela saldu seinalatu zuten. Garrantzitsua da azpimarratzea Euskal Y-aren eraikitzearen ondorioz zenbat ingurumeneko dimentsioak aterako lirakeenak kaltetuta, (animalien habitaten zatiketa, biodibertsitatea, lur aberatsen okupazioa, ikuste eta paisaia-inpaktua, zarata, bibrazioak, eta abar). Bestetik, txostenak bidaiari eta merkantzien eskara misto baten dimentsioa posible izan arren, Euskal Y-ak ez lituzke CO2 igorpenik aurreztuko 100 urte baino lehen, ezta energia aurreztuko 55 urte pasa arte ondorioztatzen du.

Azkenik, txosten honen balioa errepikatu behar dugu, honi esker zientifikoki demostratu ahal dugulako, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak erabilitako argudioak AHT defendatzeko, faltsuak eta justifikazio gabeokoa direla: azpiegitura hau ez delako ekonomikoki errentagarria ezta sozialki ere eta inola ere delako politika berde bat. Eta bi gobernuetako jarrera sozio-ingurumeneko gatazkatzat hartzeko nahiko ausarta izateagatik.

